

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko irailaren 22a / VI. urtea / 197. zenbakia

Burdinbideak

Nafarroa garai batean burdinbideen inguruan osatu zen. Altsasu-Iruñea-Kastejon bideari Plazaola —Lasarte-Iruñea—, Irati —Iruñea-Zangoza—, Bidasoa —Elizondo-Irun— eta Vasco-Navarra —Lizarra-Gasteiz-Bergara— gehitu zitzaizkion mendearen hasieran, eta eskualdeak elkarri lotu eta merkatuak biltzea lortu zuen trenak. Baina 1968an gelditu zen betirako azkena. Denbora horretan guztian egin zuen zerbitzua askoren gogoan errotuta gelditu da, eta ez da arraroa topatzea bizitza osoa burdinbideetan lanean eman dutenak.

Orain, Tuterako geltokian, gai hau oinarri duen argazki lehiaketa aparta dago ikusgai, Espainiako Burdinbideen Fundazioak antolatuta. Bertan ikus daitezke mundu osoko mila artista baino gehiagok gai honi buruz egin dituzten interpretazioak.

Ikusgarriak denak.



Lehen saria 'Nere ametsetako trenak' Joaquin Lopezen lanari eman diote.

Adixkidea delako batetik, eta ez edonolako, haserre une eta gorabehera frankoren bidez denboraren joanean mantentzen den adixkideetako bat baita (ba al dago, agian beste modu egokiagorik adixkidetasunari eusteko?), eta bestetik, berak bere 'Idiaren eraman handia' izenburupeko liburuan jorratzen dituen gaiak gogoko ditudalako, pozarren irakurri dut berrikitan, Euskaltzaindiak eta BBK-k elkarrekin antolatzen duten literatur sariketan, zehatzago izanik, Mikel Zarate izena duen saiakera arloan, ihaz garaile suertatu eta joan den ekainean argia ikusi duen liburua, gorago aipatu dudan izenburua daramala. Ipuin idazle, zutabe egile eta zenbait aldizkaritan ibilia dugu Jon Alonso Fourcade, baina, oraingo honetan, gure artean horren gutxi lantzen den saiakeraren bidetik joan zaigu

luze, literatura bera gaitzat hartuz eta berari buruzko gogoeta eta juzkorik aritzearen. Bada originaltasun eta jeniotasunik literaturan? Zerk egiten du pertsona bat idazle: inspirazioa? lan orduak? Zein da plagioa, edo berak asmatu duen bezala, bahituraren funtzioa arte eremu honetan? Nolako da sormen prozesua? Galdera hauek eta baita beste batzuk ere, beti ere, literaturari atxikiturik, planteiatzen ditu Alonsok molde garbian eta ironia puntu batez (zenbait kasutan garrazki bideratua, Asteasuko Almodovarri luzatutakoak, kasu), gaiaren zabalak bat ere kokildu gabe. Letraren tamaina txikiak

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



galarazten du, dudarik gabe, autorearen meritua, baina, azken hau, jakina, ezin zaio inolaz ere egileari leporatu, liburua kaleratu dutenei baizik. Autorearen ondorioetara joz, zera esan nahi nuke hainbat puntutat. Fourcaderen arabera, literaturan ez dago originaltasunik ez jeniorik ez inspiraziorik; bere hitzetan «idazlea ez da lan originalak egiten dituen jenioa». Eta gehiegitxo dela erizten diot nik horri. Egia borobila da zernahi lan arlotan gogor egin gabe ez dela deus lortzerik. Jardunaren jardunez idazkiak egingo ditu idazleak, baina, nire ustez, sena (inspirazioa dela esan genezake) duenak, burutuko du arte lana,

eta hola gertatu da kasu askotan. Egilearentzat, literatura, historiak sortu duen talde-lanaren ondorio hutsa da, eta neurri batean arrazoiak baduela ukatu gabe, gehikeria dela uste dut, idazlea, gizabanako den aldetik, ia ezerezearen parean uzten duelako. Artista —iraultzailea— ez baita gizartearen barruko ordenamendu edo indar korrelazioaren arabera ezinbestean sortzen den produktu puru eta hotza. Gizartearen egituraketak bere eragina badu, baina bada zerbaitei Jonen mekanizismo erredukzionistatik ihes egiten duena. Izan liteke etorria, edo sena, edo batek zer daki zer ote den hori, baina, sorginekin gertatzen den bezala, kasu honetan ere behin sua hilik, nik ez dut haiengan sinisten; hala ere, izan badituk, Jon.

Betorkigu bai, lanean dihardugula

GUERE AUKERAK

ERAKUSKETAK

Chernobyleko haurrak izenburuko erakusketa urriaren 1a bitartean zabalik dago Zizur Nagusiko Kultur Etxean. Zizur bi munduren artean Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatuta Chernobyl-eko zentral nuklearrak bertako umeengan izan zituen ondorio latzak agertu nahi ditu.

Iruñeko Jai Alai tabernan Luis Araujo, Juan eta Santiago Cia, Pilar Garcia Escribano, Isidro Lopez Murias, Rafael Ubani, Javier Viscarret, Ines Zudaire eta Arturo Gracia margolarien lanak daude ikusgai.

ANTZERKIA

Zugarramurdiko leizeetako bidean Kilimiklik txontxongilo taldeak Sorgiñak lana antzeztuko du. Emanaldiak asteburuetan izanen dira, 13etan eta 18etan iraila osoan.

Mozorro Berri 95 ekitaldien barruan, Sambhu taldeak 'Gure lurreko kondairak' lana antzeztuko du igandean Garesen. Lana arratsaldeko 8,30etan izanen da herriko plazan.

DANTZA

Udazkeneko bira 95 ekitaldien barruan Zespol Piesni i Tanca dantza talde poloniarra ariko da Urrotzen. Ikuskizuna arratsaldeko 18,30etan izanen da herriko frontoian.

IBILALDIA

Nafarroa kirol elkarteak igande honetarako ibilaldia antolatu du. Murua herritik abiatuz, Gorbeia mendia igo eta Barazar mendateko ibilaldia egingen dute. Izena eman nahi duenak 22-43-24 telefonora deitu dezake.

ZINEMA

Burlatako Floirac plazan, udako zinema egitarauaren barruan, 'El ultimo gran heroe' pelikula eskainiko dute gaur. Emanaldia gaueko 10,30etan izango da dohainik.

Nafarroako Museoan zinemaren 100. urteurrena dela eta, egiten ari den zikloa amaitzeko, 'Asalto y robo de un tren' eta 'Las dos tormentas' filmeak eskainiko dira gaur. Emanaldia arratsaldeko 7,30etan hasiko da eta dohainik izanen da.

BERTSO SAIOAK

Iturengo ostatuan, bihar, Sebastian Lizaso eta Xabier Amurizak bertsolariak ariko dira bertsoan Joarien Eguna dela eta. Saioa arratsaldeko 2etatik aitzina izanen da.

Altsasun Egin Eguneko ekitaldien artean, Sebastian Lizasok, Xabier Amurizak eta Jon Sarasuak bertso saioa eskainiko dute. Ekitaldia, igandean, 13.00etan izanen da.

Iruñean Sanfermin Txikiak direla eta, igandean, Bittor Elizagoien, Manu Gomez eta Manolo Arozena bertsolariak kantatuko dute. Bertso saioa arratsaldeko 6etan izanen da Burgoen plazan.

NAFAR KRONIKA


PATXI LARRION

Ura amets

Aurki, sindikatu eta alderdietako oinarriek helarazi zaien deiak zer nolako erantzuna izan duen neurtu ahal izanen dugu. Bizkitartean, azken egunotako eurihasen kopurua dugu neurgarri. Uda akaberak mahastiek behar ez zuten ura ekarri

nek euripean bizi izan zuten kanpaiaren erorketa, zauritu larrik ere izan zen. Urak istripuan izan zuen eragina ezin jakin, halere bistan da gure gizartean naturaren elementu honek duen protagonismoa. Astea blai hasi eta ura hizpide delarik amaitu.

tzen du. Iruñeko Mankomunitatean egin den karguen aukeraketa lekuko. Ezker Batukoak izutuko ote diren beldur naiz. Urtegia eraikitzearen kontra mila argudio erabili, kritikak eta arrazoiak ematerakoan malgutasunez jokatu, baina norabide baka-



digu. Horrez gain, kalte material ugari eragin ditu, Iparraldeko kostaldean izan direnak konparazioa. Nafarroa Garaian, era desberdinean bada ere, arrastoa utzi du urak: Orba ibarreko Katalainen gertatukoak zerikusi zuzena baitu uraren aferarekin. Idorte garaian Katalaingo elizara hurbiltzen ziren inguruko herrietakoak euria eske. Orba ibarreko eguna ospatzera bertaratu zire-

Itoizko urtegiaren kontrako manifestaldia berriz larunbat honetarako. Eraikuntza hau egiteko arrazoiak nonahi eta nolana zabalitzen direlarik, azken urteotan eztabaidan oso gutxi sakondu den irudipena daukat. Alde batean, betiko, mugiezinak diren arrazoiak eta, horiek ezbaian jarritzen, egundoko lana bestaldean. Itoizko eztabaidak urarekin zerikusirik duen gai oro baldintza-

rrekoak mugitu ezinean. Fermin Valenciaren abestiak punta-puntakoak ziren garaian, Oteizako ezagun bat Estellerriko Baigorri lur eremuaren idortasunaz mintzo zitzaidan. Mende honen erdialdean amezti zoragarria zeneko arrasto gutxi da egun, nekazal produktuak dira nagusi, ez da hori izan aldaketa bakarra, ameztekin batera ura ere desagertu baita.

ASTEKO PERTSONAIAK



Jesus San Martin
Ikaslea

Navarria auzoak Sanfermin Txikiak ospatuko ditu igandera bitarte Aldapako San Ferminen omenez eta auzoko txikiaren esku egongo da egun hauetan auzoko agintea. Navarriako neska-mutil guztien artean, Jesus San Martin aukeratu dute aurten alkate, eta Sara Iglesias eta Santiago Berrio zinegotzi. Jesus San Martin Caldereria kalean bizi da eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ikaslea da. Jaien hasiera iragarriko duen altxaferoa botatzea izanen da bere lehen zeregina, baina badu beste asmorik ere: «ahal izanez gero, ikastetxeak itxi eta gatzetxea legezkatuko nuke». Asmo onak behintzat ez zaizkio falta mutikoari. Kontua da inoiz helduko ote den gaur egun Chorraut jaunak duen eserlekuan egotera.



Xabier Diaz Esarte
Idazlea

Nafarroako Antzerki Eskolak haurrei zuzenduta antolatu duen antzerki testuen lehiaketa irabazi berri du Xabier Diaz Esarte idazleak. Alfonso Sastre dramaturgo ezagunak zuzenduriko epaimahaiak Xabier Diazen eta Alberto Miralles idazlearen artean banatu zuen txapelketako lehenengo saria. 'Dragoi, ez da ipuin ipuin dirudien oro— esan zuen printzesak' antzerki-lanagatik aurten irabazi duen saria ezezik, ohorezko aipamena ere jaso zuen Xabier Diaz Esarte antzerki eskolako iazko lehiaketan. Xabier Diaz Axular udal ikastolako irakaslea da aspaldi, eta haurrei zuzenduriko liburu bat argitaratu berri du aurten: 'Sei haur komedia, a zer-nolako komeria' izeneko hain zuzen.

AHAZTU GABE!

JAIK



Udazkena hasi berri zaigun honetan, aukera paregabea da Iruñerriko festak hurbiletik ezagutzeko, Aranguren herrikkako jaien bitartez. Horiak bai festak, inon izatekotan. Hiru egunez ez da izen handiko musika talderik arituko eta ez da arazorik izanen autoa uzteko, baina festazaleak hementxe topatuko du festa giro ederra, bai horixe!. Esate baterako, arangurendarrek eutsi diote kantatzeko ohiturari, oraindik etxeko karrakadantza egiten da, Bixente bezalako trikitilari eta kantari famatuak alaituta, eta goiznabarrarekin batera oraino ere zingar puska handiak edo txistor puxka txikiak dasta daitezke, nongoa zaren erreparatu gabe. Hortaz landara, ez da mahai gainean eskas izanen, ez Iruñerriko axuria, errea edo txilindron eran, ezta zopa beroa edo etxeko patxarana ere. Eta tripa-festarekin batera, Iruñerriaren barrena barreiatutako ahaideak agertzen dira, lege zaharrak agintzen duen moduan. Beraz, gaurkoan hasi eta igandera arte baduzu non asetu zure festa gogoia, Arangurenen, noski.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritzan, ohiturak...

Erriberri

Erdi Aroko zaldunen torneoa

I.A./IRUÑA

Erriberrin aparteko torneoa izanen dute bihar. On Karlos Bianako printzea izandakoaren eta Clevesko Agnes printzesaren arteko ezkontzaren 556. urteurrena aitziatzat hartuz, XIII. eta XIV. mendeetan Europan zehar egiten ziren zaldunen arteko torneoa egiten da herriko zezenplazan. Erdi Aroko torneoa, seigarren aldiz ospatzen da eta Erriberriko jauregia kudeatzen duen Congresos Navarra SL enpresak antolatuta du Udalaren laguntzarekin.

Tronpeten soinuen erritmoaren laguntzarekin, German Villachicaren 12 zaldik eta 25 lagunek hartuko dute parte arratsaldeko 4.30etatik aitzina izanen den ikuskizunean. Erdi Aroko torneoa garai hartan izaten ziren torneoen antzezpena da, eta zaldunak bere abilezia erakutsi beharko du zaldi gainean eta hainbat arma erabiliz. Partehar-tzaileek, txabalina jaurti beharko dute zaldi gainean doazenean, arrosaren jokoan lehiatu edo us-tezko mairuari burua kendu beharko diote. Baina proba ikusgarriena, zaldunen arteko borrokak izanen dira. Lau zaldunek beste hainbesteren aurka



Zaldunen arteko borrokak ikusi ahal izango dira berrir.

OSKAR MONTERO

lehiatu beharko dute. Hemendik ateratako garaileak berriz lehiatuko dira eta finalera talde bakoitzeko bana iritsiko dira. Proben artean, 8 abeslariz osatutako Los titiriteros de Binefar konpainiak, suarekin egindako jokoak edo azeriaren nahiz herensugearen dantza antzektuko dituzte. Ikuskizunak bi ordu eskas iraungo du eta sarrera

1.200 pezetan (48 libera) salduko da.

Torneoaz gain, Erriberrira hurbilduko denak izango du zer entzun eta zer ikusi. Bihar goizean, Vaghi Cocenti taldeak Erdi Aroko musika kontzertua eman-go du jauregiko erregearen galerian. Egun berean, orduko azoka baten antza izanen duen merkatua paratuko dute jauregi-

ko atari zaharrean. Azokak 8 postu ditu eta janaria eta artisautza izanen dira salgai. Bestalde, jauregian bertan ere, garaiko borrokak itxuratuko dira maketen bidez. Lau metro luze eta bi zabal den mahaian, 15 milimetroko irudi historikoekin, Navas de Tolosa bezalako borroka antzektuko du Simulacion historica elkarteak.


Iruña

IPES elkarteak hainbat ikastaro heldu den asteleheneetik aitzina

IRUÑA

IPES Iruñeko elkarteak atzo aurkeztu zuen duela bost urtetik hona plazaratzen duen ikastaroa: 'Zer gertatzen da munduan?'. Bi orduko 28 saiotan mundu zaballean gertatzen ari diren aldaketen arrazoiak eta ondorioak aztertu, jorratu eta azaltzen irakasten dute Javier Aisa kazetariak eta Javier Mateo historialariak. Ikastaro horrek oso ikuspegi orokorra aurkezten du gaur egungo berrien benetako garrantzia eta haien arteko loturak ulertu ahal izateko.

Ez da hori ikastaro bakarra izango, bistan denez, jadanik hasia baita hezkuntza eta le- rro zeharrekoari buruzkoa. Hegoa lan tailerraren laguntzarekin, hezkuntza erreforma- mak dakartzan aldaketen inguruan azterketa egin eta hobeto ezagutzeko pentsatua dago ikastaroa, eta alde handiz, ikastaro luzeena da, maiatzera



J. I.

arte iraungo baitute saioek.

Jugoslavia ohiko gerrak ere izango du txokorik, heldu den astelehenean hasita historiaren pisua, Bosnian azken urteotan etengabe garatu den gerraren le- rro nagusiak eta bake planak aztertu eta eztabaidatuko baitituz-

te. Urritik aurrera ingelesa eta 'Emakumea eta osasuna' ikastaro- en hasiera izango da, eta urriaren bederatzian 'Ikasteko teknikak hezkuntza erreformari egokituak' izeneko zabalduko da. Iñaki Gonzalez terapeuta eta ga- rapen integraleko teknikan adituak eskainiko du, eta ulertzen irakurtzeko prozedurak, kontz- eptuen mapak eta nahi dena go- rora ekartzeko ahalmenaren tankerako gaiak jorratuko dira.

Urriaren bostean kiromasa- jearen tailerra zabalduko da, kindalina yogarena bezala, eta urriaren bederatzian argazkilaritza tailerra, Reynaldo Almonte argazkilaria profesionalak emana. Bukatzeko, egun berean, hau da, urriaren bigarren astelehenean, bibliotekonomiari buruz ikastaroa hasiko da, Ione Lajos libu- ruzainak emana. Izena emateko IPES elkarteak San Miguel ka- lean duen egoitzara jo edo 22 59 91 telefonora hots egitea besterik ez dago.

Lizarra

Euskal Herriko Marmitako txapelketa heldu den urtean

LIZARRA

Lizarrako Peñaguda elkarteak Lizarrako Ikastolarekin batera, heldu den urteko irailean egin- go den Euskal Herriko XVIII. Marmitako Txapelketaren anto- lakuntzaz arduratuko da, Lau- dion (Araba) egin zen azken txapelketan baiezta zenez. Lizar- rake Elkarte honek hainbat urte- re parte hartu du urtero anto- latzen den ekintza honetan, eta as- paldiko asmoa zen Egako hirira ekartzea. Marmitako txapelke- taren antolakuntza ez da samu- rra izango, hala ere, maila eta partaidetza handia lortu du az- ken urteotan ekitaldi gastron- omiko honek. Irailaren 10an egin zen azkenekoan ehun bat elkar- te inguruk eta 1.500 bazkaltiar elkarte ziren. Ohi denez, sukaldari- ek goiza emango dute marmitako goxoa prestatzen, jen- deak gertutik ikus ditzan, eta ge- ro bazkaria, sariak eta anima- zioa izango da.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Galbide gastronomikoa

Izerdi patsetan esnatu nintzen, izerdi hotzean blai eginda. Amesgaiztoa burutik ezin al- dendu, zeharo zorabiatuta nen- goen. Non nongoen ere ez nekien. Nekien gauza bakarra zera zen, burutu berria nuen ametsen lapikora ez nintzela heldu. Amesgaiztoan, amak prestaturi- ko arrain arrotez beteriko lapiko erraldoia ikusi nuen, nigandik metro eskasera. Korrika bizian horretara hurbiltzen saiatu nin- tzen. Lortu, baina, ez nuen lortu, eta lapikoa nigandik urrundu zen. Esnatu berria, iluntasunaren erdian, gelako argi iturri bakarra ikusi nuen, barrotez beteriko le- hioa. Supituki dena ulertu nuen. Kartzelan nintzen, eta bertan ja- teko ematen dizkiguten jaki go- gaikarriei esker, janariarekin obsesionaturik nongoen. Obsesioa, dena dela, ez zen harritze- koa, zorioneko giltzapeko dieta honek galbidera eramane bainau.



Kartzelako janariak elefante batena izan litekeen kakalarrria eragin dit, pakidermo batentzat aproposak izan liratekeen 'For- tasec' dosiak hartuta ere gandi- tzen ez dudana. Horren ondorioz, paper higieniko eskasia heldu da nire ziegara. Harritzekoa bada ere, kartzelan komuneko papera lortzea ez da gauza batere erraza. Hilaren hasieran bina erroilu banatzen dituzte presoon artean, eta, baldin eta zure beharrak asko handiagoak badira —eta, kakalarraren ondorioz, jakina, nire beharrak askoz handiagoak dira— hilaren akaberan zure burua paper higieniko trafikoan murgildu behar izaten duzu. Oihan basati horretan barna, puterrik putreenak esanen ez lituz- keen esaldiak entzun eta esan behar izan ditut: «Zuk Lazy txakur- raren edota Francis mandoaren argazkiak dakartzan zoofilia al- dizkaria lortzen badidazu, nik pare bat erroilu emanen dizki- zut»; «Amonak sartu dizkidan artilezko galtzerdiak emanen dizkizut erroilu baten truke»... Esan bezala, kartzelako janariak galbidera eramane nau.



B

Trenbidearen irudiak

urdinbideak' izeneko argazki erakusketa ikusgai dago egunotan Tuterako geltokian. Lanak Espainiako Burdinbideen Fundazioak antolaturiko lehiaketatik aukeratu dituzte, eta garbi erakusten dute trenaren inguruan dagoen magia guztia erakargarria dela baita artistentzako ere. Azpimarratzekoa da lehen sariari zegokion milioi pezeta nafar batek —Nicolas Lopezek— jaso zuela.



Bigarren saria,

Alvaro Felguerosoren 'Tren Habana-S. Spiritus, Cuba, '94' lanak eskuratu du.

A. B. / IRUNEA

Ehun dira egunotan Tuterako geltokian ikusgai dauden argazkiak, denak kalitate handikoak, nazioarte maila zuen lehiaketa honetara 2.762 argazki bidali baitziren. Horien artean aukeratu dituztenak dira, hain zuzen ere, orain, Espainiako hainbat geltokitan paratu ondoren, Nafarroara heldu direnak. Erakusketak bigarren aldiz izan du geltoki Euskal Herria, Tuteran izan aurretik Donostian paratu baitzuten antolatzaileek.

Azken urteotan errepideak trenbideari lekua eta izena hartu diola ezin uka, gero eta ugariagoak baitira autobusez edo autoz egiten diren bidaiak, eta etengabe murrizten direlako trenbideetako ordutegi eta zerbitzuak. Hala ere, eta mende honetan batez ere, burdinbidearen inguruan eraiki den mistika eta magiaren erdia ere ez du erdietsi, inola ere ez, bide berriak. Ez da arraroa, beraz, bi errailen gaineko ibilgailu honi buruz hainbeste lerro idatzi izana, ezta artearen arlo guztietatik ahalegin eta inspirazio iturburu jaso izana.

Argazkilaritza ez da salbuespena, eta garbi ikusten ahal da burdinaren kolorea, bidaiarien aurpegiak, makinaren kea eta geltokietako kaiak ere gai direla artisten gogoia pizteko. Zuri-beltezkoak zein kolorekoak, tekni-




Lehen Gazte saria, Luis Kurbaren 'Entrevias-ek' erdietsi du.

ka tradizionalak eta ordenadoren eginikoak, muntaiak zein errealtatean oinarritutako lanak... mota guztietako artistak eta espresabi-deak bildurik daude Espainiako Burdinbideen Fundazioak antolaturiko erakusketa honetan.

Bederatzigarren edizio honetako lanen kalitate mailak bereziki harritu ditu epaimahaikoak, erakusketa aurkeztean Miguel Lopez Fundazioko arduradunak azaldu zuenez, eta horrek meritu handiagoa eransten dio lehen sariaren irabazleari, Nicolas Lopez iruinemeari, hain zuzen ere. 1956an jaiotako argazkilaria profesional honek badiu hainbat lan banatuta bilduma publiko zein pribatu frankotan, eta erakusketa askotan paratu izan ditu bere argazkiak azken urteotan. Aldizkari eta katalogoetan ere argitaratu izan ditu behin baino gehiagotan. 'El tren de mis sueños' ('Nere ametsetako tren') bere lanari esker irabazi du edizio honetako lehen saria, milioi bat pezetakoa. Autore honen beste bi argazki aukeratu dituzte erakusketan izateko, eta horiekin batera Miguel Bergasa iruindarra —'Familia' lanarekin—, Jose Ignacio Lobo Altuna leioarra —'Titulorik gabekoa' lanarekin—, Jose Manuel Marruedo hondarribiarra —'Zorroza' argazkiarekin—, eta Aitor Ortiz bilbotarra —'Hora punta' izenekoarekin dira aukeratu dituz-

Burdinbidea  argazkitan



'Titulorik gabekoa'.

Jose Ignacio Altuna



'Ticket Collection'. Sten-Ake Sahlberg



'Burnibidean bizi'. Vicente Peiro



'Familia'. Miguel Bergasa

ten beste euskaldunen lanak. Aurtengo berrikuntza gisa aipatzekoa da argazkilari gazteei zuzenduriko saila, 251 partaide izan baititu estreinako deialdian. Sail honetan lehen saria espainiar gazte batek jaso du.

Aurtengo deialdirako oinarriak kalean dira jada, eta azpimarratu behar da azaroaren 17ra arte dagoela zabalik epea, eta Espainiako Burdinbideen Fundazioak Madrilén duen egoitzara (Palacio Fernan Nuñez, Santa Isabel, 44. 28012 Madril) bidali behar dela. Argazkilari bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu, eta argazkiak

burdinbidearen gaia —hiri barrukoa zein hirien artekoa, eta bidaiariak, geltokiak, trenak, zubiak, tunelak...— jorratu behar du argazkiak, jakina. Argazkiak originalak izanen dira, eta 18x24 cm. izango da zabal, gutxienez, eta 40x60 cm., gehienez. Sariak aurtengoan parekoak izango dira, alegia: lehen sariak ehun mila pezeta, bigarrenak eta gazteen sariak, 300.000, eta hamar sari izanen dira 50.000 pezetakoak. Gainera, beste 95 argazki aukeratuko dituzte ondoren egingo duten erakusketan parte hartzeko, eta horiek 3.500 pezetarekin sarituko dira.

Kritikontzi

Euskal eskupilotak Espainiakoa dirudi

XANTI BEGISIRISTAIN

Bai, badakit euskal pilota ez zela sortu Euskal Herrian, edo agian hobe esanda, gure herrian jokatzen hasi baino lehenago beste herrialde batzuetan erabili zela, esate baterako Egipton, Grezian, Erroman, eta abar. Horrelaxe irakurri ahal izan nuen liburu berezi batean behintzat.

Era berean ere badakit Penintsula Iberikoan, eta zehazkiago erranda, Levante eskualdean, badagoela pilota mota bat gutxienez, nahiz eta zenbait arlotan ezberdina izan. Baina kontua da hemen, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan ere aspaldian finkatu eta errotu zela jokatze eta jostatzeko pilota hainbat eta hainbat modalitateetan, eta horri esaten zaio euskal pilota; edo oraintxe arte behinik behin horrelaxe deitu diogu.

Baina begira ezazu, irakurle horrek, nola diren gauzak. Konturatu al zara azken bizpahiru urteotan debekatua dugula euskaldunok goi mailako eskupilota partidu profesionalak telebistetan euskaraz zuzenean entzutea? Bai ba, horrelaxe da! Beno, nahi baduzue kendu 'debekatu' hitza eta jarrin 'ezin', baina azken finean ondorio berberaxe dakar; hau da, Espainiako Estatuko gazteleradun jende guztiari aukera ematen zaio hizkuntza horretan entzuteko partiduak, eta aldiz Euskal Herriko, bertakoak izanda kirola eta entzuleko, guri ez zaigu eskubide hori errespetatzen. Gorago motz geratu naiz, bai, Ameriketara ere ikus-entzun baititzaizkete

partidu horiek gaztelaniaz, eta horrekin pozten naiz; hobe, behintzat!

Argi eta garbi utzi nahi dut deus baino lehen, ez dudala ezer mundu honetako inongo arraza eta hizkuntzaren aurka gure eskubide guztiak bere osotasunean errespetatzen diren bitartean, bestela bai, bestela izan ditzaket arrazoi asko eta handiak egoera hori sortu dutenen aurka.

Izan ere, hemen zerbait arraroa gertatzen da: kanpokoei asetzen zaizkie beren behar guztiak, eta etxekooi berriz ez. Zergatik ote da hori? Kontraesan galanta, ez al da hala?

Garai batean, ETB1-en bidez ikus-entzun genitzaileen euskaraz eskupilota partidu profesional onak, baina errealitatea da Asegarce enpresa sortu zenez geroztik, zerbitzu hori, euskaraz ematearena alegia, 'lapurtu' egin zaigula. Gauzak horrela, TVE2an hor ikusi ditzakegu partidu eta irudi onak baina dena erdara hutsean. Niretzat ordea gauzarik mingarriena honako hau da: programa horietan aritzen diren aurkezlea, pilotari gehienak, enpresari asko, artekari ugari, e.a. euskaldunak direla (horien artean askotxo euskaltzaleak), eta hala ere beroiei ez zaie aukerarik ematen euskara erabiltzeko, eta ezta entzuleoi aditzeko ere. Horrela lortzen ari direna da gazteleraz bultzatzea, euskara zokoratzea, euskaldunak behartutako erdaran eroso sentitzea, ni bezalako «pizti arraroren bat» amorraraztea eta kitto; «hemen ez da deus ere gertatzen!».

Beno, egia esan zerbait

bai, zer edo zer badakit gertatzen dela edo gertatu zela behintzat, zeren eta Josetxo Lizartzak berak aitortu baitzidan duela bi bat urte Labrit pilotalekuan Asegarce enpresa saiatu zela ETB1-ekin negoziatzen hitzarmen bat lortzeko euskararen tratamenduari dagokionez, hau da, partiduak bi enpresen txandaka emateko, Asegarcek euskara ere tartekatzeke, eta abar. Egin kontu, Josetxo Lizartza jaunak adierazi zidan euskararen horrelako normalizazioen bat lortuz gero bera izango litzatekeela mundu honetako pertsonari zorientatua. Baina nonbait ETB1-eko zuzendaritzakoei ez zitzaizkien interesatu eskaintza, hura eta erantzun omen zieten, urte hartan behintzat, Lapurdiko Pilota Mundialekin aski zutela; dirudienez gerora ere berdin pentsatuz jarraitzen dute ekarri dituzten emaitzen arabera.

Asegarce enpresak ematen duen beste ikuskizun tamalgarri bat honako hauek osatzen dute: pilotarien izen-deitura desegokiak —'Ceceaga', 'Ignacio Errandonea', e.a.— artekariak erdara hutsean aritzea leku guztietan —«mil colorau»— Labriten esaterako, e.a. Egia esanda, nik ez dakit zein arraio agintzen duen Euskal Herriko Pilota Federazioak afera hauetan guztietan orden pixka bat ez jartzeko; ez du nahi ala ezin ote du, Espainiakoa gainean duelako?

Hortaz, ETB1, Asegarce eta Euskal Herriko Federazioak badakizue: 'Nori berea da zuzenbidea', bestela batzuek zaletasuna galenezake.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Kontuz gero liberalkeriarekin

Urrezko Inurriaren argitaletxearen eskutik 630. lodikote mardula argitaratu zen 1891an



«Ez izutu, iracurle ona, eta ez becozcotu bereala asieratic liburuts onenganaco. Ez ereiciraz escutic asca papera, bada naiz itz gorrizuritzeraino quis-caldu ta goritubac egon, biyoc bertan etsecoi ta aisquire-izbertan erabillico ditugun jardungariyac, etzaizquitzu, ez, berarekin biatrac erreco, bada emen esaten degun suba, itzal-daketada, ta ez besteric». Hone-laxe hasten da *El liberalismo es pecado* izenburuko lan erraldoiaren euskarazko bertsioa. 1891.ean eta Bartzelonako Gaztedi Kristauarekin Akademiak bultzaturik, lan honen edicion monumental eta poliglota agertzen da suskripzioaren bidez lorturiko sosei esker —erabili dugun liburukian suskrip-toreen bigarren eta laugarren zerrendak agertzen dira soilik, Kataluñako izenez horniturik, eta bertan Euskal Herriko suskrip-toreekin osatu hirugarren zerrendaren berri eman arren, ez da inon igeri—. Urrezko Inurriaren argitaletxearen eskutik, hauxe zenbatu gabeko 630 orrialdetako liburukote mardula dugu, 34 zentimetrokoa, urrutira ez karreatzeko modukoa, zortzi hizkuntza ezberdinen itzulpenekin —gaztelera, katalana, euskara, portugesa, latina, italliera, frantxa, eta alemana—, bakoitza bere tipografia berezian, eta grabatu eder eta ugari- ren laguntzaz.

Halere, lan honen inguruko historia osoa zazpi bat urte lehentxeago hasia zen, *Revista popular* zeritzan aldizkariaren zuzendaria zen Felix Sarda eta Salvany jaun presbiteroak *El liberalismo es pecado: cuestiones candentes* 228 orrialdetako lan gotorra 1884. urtean argira eman zuenean Bartzelonako Pino karrikan zegoen Tipografia Católica izeneko argitaletxean. Sarrera batek, berrogeitabi kapitulok eta epilogoak osatzen du hau, eta liburuan berean idazlearen zenbait lanen zerrenda jasotzen da —marketing marketsa ezta gero—, besteen artean, *A una señora y a muchas, Casa y*

casino, El sacerdocio doméstico, Las diversiones y la moral, ¿Para que sirven las monjas?, eta aipatu *Revista popular* as-tekariaren barruan zeukan 'Lecciones de teología popular' edota 'Propaganda católica' saioei zegozkienak. Soma dai- tekenez, ez da hagitz beharrez- koa gertatzen Aita Sardaren pentsamoldea azaltzea, baina nonbait despistaturen bat balitz, hona hemen aldizkari herriko- i hortaz berak egiten zuen defini- zioa: astekari ilustratua, Erro- mako onespenez Bartzelonan argitaratzen dena, bere helbu- rurik garrantzitsuena kristautu- sunaren defentsa eta propagan- da izaten delarik.

Liburu honen lehenbiziko euskaratzea itzultzaile izenik gabekoa dugu, nahiz Villasante frantxiskotarrak bere euskal li- teraturaren historian esan Ze- gamako J.M. Etxeberria kano- nigo batek eginikoa dela. Guk ez dakigu zein kriteriorekin, edo non idorokitua den izena, baina bai badakigula idazkia Bartzel- onan ere agertu zela 1887. ur- tean, Santa Monikako ramblan zagoen aipa Urrezko Inurria- ren moldiztegia hain zuzen ere. Hitzez hitzeko itzulpen zehatza dugu hauxe, nahiz aur- kibidean bi kapitulu gehiago dauden: *Liberalen dotriña pe- catu da: galda bician dauden aucibideac Erriaren errevisa deritzan paperaren zuzendari D. Felix Sarda eta Salvany apaizac argitara emanac*. Aurrekaldean edo portadan, origi- nalean agertzen den Burgos- ko Eliz Barrutiko gotzainek el- kar harturik egin gutunaren ai- pu bera dugu: «*Dei bedi racio- nalisten, irabiazalcen, edo naiz liberalen dotriña, ezur eta ma- mi, oso ta bici, naiz ezcutuan eta naiz aguirian, fede eguiac- coaren ucamena izango da be- ti*». Itzultzaileak bere uztatik propio gehitzen duen gauza bakarra liburuaren bukac- ran dagoen 17 orrialdetako 'Meza santua ondo enzuteko modua' izenburuko eranskina dugu.




■ IX. Euskadiko Banakako Txapelketako partida. 1995ko apirilean jokatu.

Jesus Maria Iruzubieta, 2.410 ELOkoa (Bizkaia) — **Mario Gomez**, 2.460 ELOkoa (Bizkaia).

1.e4,c5; 2.Zf3,d6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,Zc6; 6.f3. Erregearen alde erasotzeko lehenengo urratsa. 6....Db6; 7.Zb3,e6; 8.De2,a6; 9.g4,Ae7; 10.h4,Dc7; 11.Ae3,b5; 12.0-0-0,Ab7; 13.Eb1. Zuhurtasunagatik. Bazuen aukera 'g5' egin, eta aurrerapenari jarraitzeko. 13....Gc8; 14.g5,Zd7; 15.Df2,cZ-e5; 16.Zd4,Zc5; 17.Ah3,b4; 18.cZ-e2,Zc4; 19.Ac1. Beltzak oso erasokor dau-

de. Txuriek erregearen babesa zaindu behar izan dute.

19...0-0. Txuriei sartzen saiatzeko aukera sortu diete horrela. 20.h5,Db6. Ikus koadroa. Denbora gehiegitxo galdu dute beltzek. Txurien erasoaldia geldiezina izanen da. 21.b3,Za3 xa; 22.Aa3,a3; 23.h6,g6; 24.Ze6,e6; 25.Ae6 xa,Gf7; 26.Dd4,Af8; 27.Af7 xa,Ef7; 28.Dh8,Ee8; 29.Dh7,d5; 30.Dg8,Ze6. Partida erabakita zegoen, baina are errezagoa jarri zaie txuriei. 31.Dg6 xa, Ed7; 32.d5. Txikizioa erabatekoa izanik, beltzek men egitea besterik ez zuten izan. ■



Duela zenbait hilabete Guliako 'Gartxi' bertsolariaren berri eman genuen NAFARKARIAN, eta, gaurkoan, argi erran daiteke Arakilek ere izan zuela bere bertsolaria. Euskararen galerak, ordea, zokoratu ditu haien lanak, eta, ilunpean utzi ditu bertze nafar bertsolari aunitzen izenak. Oraikoan, doi-doian baldin bada ere, salbatu egin da Medranoren izena, eta ez da gutxi, alajaina!

E. D. DE ULZURRUN / IRUÑEA

Izenburua irakurri orduko, harrituxea behar duzu, noski. «Nola? Medrano izeneko bertsolaririk? Nongoa eta Arakilgoa?». Ba horixe bera galdetu nion ene buruari, Iruñean bizidena Manu Gómez bertsolari antiguotarraren bitartez, bertsolari arakildar baten berri izan nuenean. Nonbait 1929garren urteko argazki-liburuxka batean gure gaurko protagonista-ren argazki bat agertzen zen. Diputazioko liburutegira joan, delako liburuxka eskatu, eta, gure pozerako, argazkien aurkibidean hauxe irakurri genuen gaztelaniaz: 'Arakil-Hiriberriko artzai bertsolaria'. Aurkibideak adierazitako orrialdera jo, eta, gure etsipenerako, baten batek aurrea hartu eta argazkia eraman zuen, guraizeak erabilita. Ale bakarra zen, noski. Ondoren, xahartua dagoen Medranoren alabarik gazteenak erranik badakigu «aita zena 'de vasco' jantzita azaltzen zela» argazkian. Jakina, berak ere ez zuen argazkia.

Kalixto Medrano Iruñean sortu eta txikitik Etxarri Larrunera eraman zuten. Lekunberri ondoko herri horretan eman zuten haurtzaroa, eta, gazte-gazte zelarik, Balda izeneko neska batekin esposatu zen Hiriberrin. Eta herri honetan plazaratu zuen bere bertsotarako sena, hantxe botatzen zituen bere arrazoiak eta kantari ibiltzen zen urte bareneko jai eta festa guztietan. Gure Kalixtok bertsoak paperean moldatzeko zaletasuna ere ba omen zuen, eta paper horiek guztiak etxeko kutxa handi batean gordetzen zituen. Inork ez omen daki non dagoen kutxa edo non dauden bertsoz betetako pape-rak. Baina hara zer topatu duen Sergio Uhartte hiriberritar gazteak duela 25en bat urte herrian ateratzen zen aldizkari batean, hots, 'Calixto Medrano: singular poeta vasco' izenburua daraman artikulua, nork eta gure bertsolariaren semeak berak, Domingok, idatzita. Domingo hila da. Hona hemen artikuluan, gaztelaniaz, agertzen diren zenbait pasarte:

«Euskal Herriko zenbait egunkaritan Kalixto Medranoren bertsoak argitara ematen ari dira, eta, gauza hori zor zaio gizon bat egiten ari den lanari. Izan ere, Antonio Zabala jesuitak urteak eta urteak daramatza Euskal Herrian euskaraz egindako poesia eta literatura ikertzen. Eta, azken bolada honetan, Donostiako eta Tolosako artxibategietan topatu ditu Kalixto Medranoren zenbait lan. Aita Zabala harrituta gelditu zen, hizkera garbia baitzen, bertsoei grazia zerien, eta, bere ustez, mende honetako poetarik handien artean koka daiteke Kalixto... Aita Za-

Kalixto Medrano, Arakilgo bertsolaria



Sakanan bertsolari gutxi ezagutu dira berriki arte.

bala lan sakabanatu horien antologia egiten ari da eta zaila gertatzen ari zaio, seme-alabok ia deus gorde ez dugulako...».

Zabala jaunarekin telefonoz hitz egin, hirutan galdetu Medranoren bertsoez eta hirutan ukatu

Gure Kalixtok bertso paper guztiak kutxa handi batean gordetzen zituen, baina inork ez omen daki non dagoen.

Argi dago, noski, Medranoren bertsoak baliagarriak izanen direla ezagutzera eman daitezkeen heinean.

egin zuen halakorik. Argi dago, noski, Medranoren bertsoak baliagarriak izanen direla ezagutzera eman daitezkeen heinean, eta ez du inolako zentzurik kolkorako gordetzeak. Agi denez, ba omen da bertzelako iritzia duenik.

Hala eta guztiz ere, borts bertso, behintzat, ezagutzen ditugu, 1969garren urteko udazkenean Diputazioko 'Principe de Viana' euskal aldizkariak argitara emandakoak. Kalixtok Pablo Fermin Irigarai 'Larreko' bere sendagileari igorri zizkion (Larreko idazleari, jakina):

Don Fermin jauna aditu beza nere kantu hau gogotik sentimentubak ateratzera noaie nere agotik. Lenere neri egin ziraden operazioa goitik berriz ere ni hemen eldu naiz onera berri berritik, faborez bada eskatzen diot atenzioa nigatik.

Jaun zerukoak kastigatuba nola ni egin ninduan pena aundiyak pasatutzeko jai nintzan ni munduan. Hala konbeni izango dala hori dadukat goguan, balle honatik beste ballera joaten geran orduan Jaun zerukoak hartu gaitzala gu alkarrekin zeruan.

Kalixto daukat nere izena Medrano apellidua, hamar umeren aita gañera interesa aundigua lan asko egin dut hoiek mantentzen, hori egia klarua, berriz ere ni sendatzen banaiz eta badaukat modua Jaun zerukoak eman zaidala lana egiteko gogua.

Biyotz oneko euskaldun denok behar genduke unitu gure euskera galdu ez dedin atzendu gabe segitu. Kontrarioak izanagatik ez degu behar arritu, desafioak egiñagatik ikaratuta ez gelditu, gure Iesusen gurutze horrek denok defenditzen gaitu.

Guraso denok hartu dezagun exenplo hori goguan, geren umeak edukatzeko kristau onaren moduan, dotriña horren fedarekin izan ditezen munduan, beste dotriñek ez hartutzeko bere animan galduan, gero guziok sartu gaitzen mantxarrik gabe zeruan.

Bertsoen ondoan honela idatzi zuten aldizkari horretako arduradunek: «Kalixto Medrano zenaren seme edo ondokorik badenez ere eztagigu, eta bertso horiek irakurri eta, norbait aterako dela espero dugu, zer bizibide daramaten eta aita bezain euskaldun irauten duten, guri adierazteko». Ez zen inor atera, ordea, eta euskara ez omen zen seme-alabenganaino iritsi.

Kalixto Medrano 1943ko urtarrilaren 9an hil zen, xahartua. Hortaz landara, ez da askoz ere datu gehiagorik. Ia hurrengo baterako gauza gehiago ateratzen den.

«Batzen gaituen gauza asko dago»

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Pekinen Emakumeari Buruzko IV. Mundu Konferentzia egiten ari zen bitartean, mundu osoko 30.000 emakumeren topaleku izan zen Huairou Txinako herria abuztuaren 31 eta hil honen 8a bitartean. Emakumeen Foro Alternatiboa egin zuten, eta han izan ziren Nafarroako Gizarte Ikasketarako Talde Eragileko (IPES) kide diren Blanca eta Silvia Fernandez ahizpak. Joan den astean itzuli ziren Iruñera. EGUNKARIA Silvia

meen Foro Alternatiboa eta gisakoen bilera handiak sormen gutxikoak baitira gehienetan. Nazio Batuen Erakundeak antolatu bilera izan dela ere ezin dugu ahaztu. Foroa bukatuta, hala ere, Virginia Vargas Peruko feminista eta Latinoamerikako ordezkariak errandakoarekin bat egiten dut, hau da, Emakumeen Foro Alternatiboa emakumeen mugimenduarentzat onuragarria izan dela uste dut, lan asko egin da. EGUNKARIA.— Nolako izan da lan hori, zer arlo jorratu dituzue?

parte Foro Alternatiboan. Erraza al da guztien artean adostasuna lortzea?

FERNANDEZ.— Ez da erraza. Forora ailegatu nintzanean bi gauzaren beldur nintzen. Alde batetik, mugimendu feminista emakumeen mugimendu orokorraren barruan gutxiengoa izan zela, eta bestetik, fundamentalisten beldur nintzen, bai katoliko, musulman edo sozial-demokratena adibidez. Baina ez genuen arazorik izan, eta emakumeen batasuna nabaritu nuen, bai horixe.

EGUNKARIA.— Feminismoa

be. Horren alde borrokatzen ari gara. Eta Pekinen egindako konferentzian erabaki eragin-korrik hartu ez bada ere, gure aldarrikapenak, gure kexak eta beharrak gobernuen agendetan sartzea lortu dugu.

EGUNKARIA.— Mundu osoko emakumeak biltzeaz gain, belaunaldi ezberdinetako emakumeen bilgune ere izan da Foro Alternatiboa.

FERNANDEZ.— Bai, baina emakumeok batzen gaituzten gauzak banatzen gaituztenak baino ugariagoak direla ikasi dugu. Afrikako neska gazte batetik, adibidez, Txinara joan aurretik bere amonarekin mintzatu zela erran zuten bilera batean. Bere amona alfabetatu

Silvia Fernandez

IPES-EKO ARDURADUNA



«Feminismoa indarberriturik aterata da Emakumeen Foro Alternatibotik eta hori pozgarria da»

5.000 mintegi inguru

Silvia Fernandez IPESeko ki-deak «gertakizun historikotzat» jo du Txinako Huairou herrian bizi izandakoa. Abuztuaren 31 eta irailaren 8a bitartean emakumeen egoera, arazo eta borroka mintzatu da mundu osoko beste 30.000 emakumerekin batera. Emakumeen Foro Alternatibotik pozik itzuli bada ere, oraindik ere lan asko egiteko dagoela nabarmendu du, nahiz eta poliki-poliki aurrera jo. Feminismoa, bere ustez, indarberriturik aterata da Txinako biltzarretatik, «mundu osoko emakumeen kontua dela frogatu baitugu».

Orotara, 5.000 mintegi inguru egin dituzte Huairouren bildutako emakumeek eta ekologia, ekonomia edo politika bezalako gaiak jorrotzeaz gain, salatu beharrekoa ere salatu dute. Silvia Fernandez ustez, hainbat gaitan ados jarri badira ere, badira oraindik airean gelditu diren beste hainbat.



OSKAR MONTERO

Fernandezekin mintzatu da Txinan bizi izandako egun horietaz eta bertan egindako lanaz.

EGUNKARIA.— Zein izan zen Txinara ailegatu bezain pronto egin zenuen lehen gogoeta?

SILVIA FERNANDEZ.— Niretzat gertakizun historikoa izan da Txinan bizi izandakoa. Hasieratik, ailegatu nintzen une beretik sentitu nuen hori, eta hemen Iruñean nagoela ere sentimendu bera daukat. Ekonomia, eredu politikoak eta ideiak ere krisian dauden garai honetan emakumeen mugimendua da aurrera doan eta borrokatzen den bakarra, alternatibak aurkeztuz. Hala ere, beldur ere banintzen, Emaku-

FERNANDEZ.— Mota guztietako gaiak landu ditugu, besteak beste, osasuna, sexualitatea, hezkuntzarako eskubidea eta beste hainbat. Baina horietaz gain, komunikabideek ezkututzen duten baina funtsezkoa den lan intelektuala ere azpimarratu behar da. Hau da, emakumeok ere krisi ekonomikoari buruzko analisiak egiten ditugu, edo egungo demokrazia ere salatzen dugu, ez baititu biztanle guztiak ordezkatzeko. Ekologia, politika eta bestelako gaiak ere badira gure ardura, eta alor horietan ere lan egiten dugu, nahiz eta horretaz inor ez mintzatu.

EGUNKARIA.— Mundu osoko 30.000 emakume hartu duzue

indarberriturik aterata al da Emakumeen Foro Alternatibotik?

FERNANDEZ.— Baietz uste dut. Emakumeon borrokaren benetako motore feminismoa dela argi gelditu da foroan, eta nik behintzat ez nuen halakorik espero, ezustea izan da. Feminismoa ez dela europarraren kontua bakarrik frogatu dugu, eta Afrikako emakumeak ere sutsuki mintzatu dira feminismoaz. Emakumeok boterea eskuratu behar dugu eta bazterrean uzten gaituen sistema aldatu. Izan ere, gaur egun, ezin da ekonomiaz, politikaz, ekologiaz edo beste edozertaz mintzatu emakumeon iritzia kontuan hartu ga-

gabeko emakume zaharra da, herrixkatik inoiz aterata gabeko emakumea. Bilobak, Txinara joan aurretik, nora eta zertara zihoan erran zion amonari, honek ulertuko ez zuelakoan. Baina amonak zera erran omen zion: 'Zoaz, eta egin ezazu zuk, nik ezin izan dudana egin'. Emakume guztiona da gure borroka. Gu baino lehenago borrokatu zirenek zailtasun gehiago izan zituzten, eta gaur daukaguna beraiezi zor diegu. Hala ere, lan asko dago egiteko oraindik.

EGUNKARIA.— Txinako egoera asko azpimarratu dute komunikabideek. Kaltegarria izan al da zuentzat?

FERNANDEZ.— Txinako egoera kritikatzeko bidekoa da nire ustez. Foro Alternatiboa egin den bitartean, gainera, lotsagarria izan da Poliziak hartu duen jarrera. Emakume bakoitzeko lau polizia zegoen atzean. Baina horren errua, azken finean, Nazio Batuen Erakundeak du, bere ardura-pean egon baikara gu.

P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI EROA

BITXIKERI KOMIKI-LITERARIOA (besterik gabe)

